

# ADITUA EGUN BATEZ

## 1. IDEIA

Gure negozio-ideia zerbitzu bat da, “Aditua egun batez” izena duena.

Gaur egun, etorkizunerako zalantzak dituen jende mordo dago, eta geroaldiko ikasketak ongi erabakitzea oso erabaki garrantzitsua delakoan gaude. Zerbitzu honen bitartez laguntza eskaintzen dugu, eta geroaldian zalantzak dituen jendeari lan batean aritzeko edo ikasketak frogatzeko aukera ematean datza. Modu horretan, laguntzen diegu haien etorkizuna argitzen eta gustuko duten lana aukeratzen. Bezeroak ikasleak edo helduak izan daitezke, eta eskuragarri izango dituzten baliabideak ugariak izango dira.

Negozio-idea honen bitartez esperientzia laborala eskaintzen dugu eta iraupena egun batekoa, aste batekoa edo hilabete batekoa izan daiteke, bezeroak ideiak argitzeko behar duten denboraren arabera, hainbat eskermentu aukeratu ditugu:

- DBH
- Batxilergoa (zientziak, zientzia sozialak, humanistikoa)
- FP (goi edo erdi mailakoa)
- Unibertsitatea

Baina erabakiak hartu baino lehen, bezeroa ezagutu behar dugu, laguntza eta aholkuak eman ahal izateko eta horretarako test bat egin beharko diegu gure web orrialdearen bitartez.

Test horretan hurrengo informazio hau agertuko da:

- Gustuko dituzten jarduerak
- Informazio pertsonala
- Ikasketak
- Esperientzia
- Datu gehigarriak

